



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EAE-KO TOKI ERAKUNDEEN KONTUEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2020

EUSKAL TOKI ERAKUNDEEK FINANTZA EGOERA OSASUNTSUA DUTE Azpimarratzekoa da handia izan dela Epaitegi honi kontuak emateko betebeharraren betetze-maila eta gora egin duela batere akatsik atzeman ez zaien erakundeen kopuruak.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi du Euskadiko Toki Erakundeen 2020ko ekitaldiko Kontuei buruzko txostena.

Txostenak 2020an EAEn zeuden 252 udalen eta udalaz gaindiko 62 erakundeen (partzuergo, mankomunitate, kuadrilla eta partzoneria) kontu orokorrak aztertu ditu. Honela, bada, aztertutako udal eta udalaz gaindiko erakundeek antolamenduan 80 erakunde autonomo, 101 udal sozietate publiko eta 4 enpresa erakunde publiko besarkatzen dituzte. Eta, gainera, 20 fundaziotan esku hartzen dute.

Epaitegi honi kontuei buruzko dokumentazioa igortzeko duten obligazioa maila handian betetzen dela azpimarratu behar da. 14 udalek eta udalaz gaindiko 6 erakundek soilik urratu dute obligazio hori. Ez da akatsik azaleratu 64 udaletan eta udalaz gaindiko 19 erakundetan.

HKEEk atzerapenak izan direla ikusi du urteko aurrekontua onestean (92 udaletan eta udalaz gaindiko 24 erakundetan); aurrekontua kitzatzean (29 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan) eta kontu orokorra onartzean (61 udaletan eta udalaz gaindiko 7 erakundetan).

9 udalek eta udalaz gaindiko 6 erakundek aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu zituzten. Ez dago jasoia Kontu Orokorra onartu denik 7 udaletan eta udalaz gaindiko 5 erakundetan.

HKEEk igorritako kontu orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez, legeria zein mailatan bete den egiaztatu du. Gainera, aurrekontuko likidazioek, balantzeek eta galera-irabazien kontuek ezargarria den araudiak agintzen duen informazio guztia besarkatzen dutela eta agiri horiek elkarrekiko koherente direla egiaztatu du.



Kontuen edukiari dagokionez, honako hauek dira akats ohikoenak, ez jasotzea: bankuko oharrak edo ziurtagiriak eta kontziliazioak (32 udal eta udalaz gaindiko 6 erakunde), aurrekontu- eta kontabilitate-emaizten kontziliazio-egoera (15 udal eta udalaz gaindiko 5 erakunde), ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (14 udal eta udalaz gaindiko 6 erakunde) edo diruzaintza-kontua (11 udal eta udalaz gaindiko 3 erakunde).

Kontu Orokorrari dagokionez, akatsik ohikoena da balantzean edo ekonomia- eta ondare-emaizten kontuan ibilgetuko amortizazioak ez txertatzea (58 udaletan eta udalaz gaindiko 14 erakundetan).

Akats horiek batik bat 5.000 biztanletik beherako udaletan gertatzen dira.

TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA

2018ko abenduaren 31n, udalaz gaindiko erakunde 1ek diruzaintza geldikin negatiboa zuen (defizita) eta 2020ko abenduaren 31n finantzatu gabe zeukan.

Euskal **udalen autonomia fiskalak** (sarrera guztien gainean zerga zuzenek, zeharkakoek, tasek eta bestelako sarrerek eragindako diru-sarrerak) 2020an % 37,92 egin du. **Biztanleko gastuak** batez beste 1.370 euro egin du.

Udalei dagokienez, **biztanleko batez besteko zorpetzeak** gora egin du 2020ko ekitaldian eta **biztanleko 484 euro** izan da. Udalaz gaindiko erakundeena, berriz, biztanleko 128 eurora jaitsi da.